

**BENEDIZIONE NAGUSIAK**

Kantuz : 1127

Benedizione hauek har daitezke meza, Hitzaren liturgia bat, bezperak, edo sakramendu bat bururatzean,

Apezak erraiten du :

«Apal buruak Jainkoaren benediziona hartzeko»,  
eta gero eskuak jendearen gainerat hedatuz erraiten du otoitza.

**1. ABENDOIA**

Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue,  
eta berriz aintzaz etorriko dela igurikatzen.  
Haren etortzearen distiraz Jainko guziahaldun urrikaltsuak  
saindu egin zaitzatela eta benedizionez bete.

**R̄.** Amen.

Bizi huntan egin zaitzatela fedean azkar,  
esperantzan alai eta maitasunean kartsu.

**R̄.** Amen.

Gure Salbatzaile gizon eginaren etortzeaz  
bozkariatzen zirezte :

berriz aintzaz etorriko denean,  
betiereko biziaren saria ardiets dezazuela.

**R̄.** Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

**R̄.** Amen.

**2. EGUBERRI**

Jainko guziz onak, bere Semea gizon egitearekin,  
haizatu ditu munduko ilunbeak,  
eta hura Maria Birjinaganik sortzearekin,  
argitu gau [egun] saindu hau.

Ken ditzala zuenganik bekatuaren ilunbeak,  
eta zuen bihotzak bertuten distiraz argi.

**R̄.** Amen.

Aingeruaren bidez eman zien artzaineri  
 Kristoren sortze salbagarriaren berri :  
 bere bozkarioz bete ditzala zuen bihotzak  
 eta egin zaitzatela bere Berri Onaren mezulari.  
 R̄. Amen.

Bere Semearen gizon-egiteari esker,  
 zeru-lurak bat egin ditu Jaunak :  
 bete zaitzatela bere bake eta gogo onez,  
 eta bat egin zeruko Elizarekin.  
 R̄. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
 Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.  
 R̄. Amen.

### 3. URTATS

Benedizione guzien iturri den Jainkoak  
 eman diezazuela grazia,  
 ixur bere benedizione ugaria,  
 eta urte guzian bizirik eta onik begira zaitzatela.  
 R̄. Amen.

Jainkoak begira dezala osorik zuen fedea,  
 eman diezazuela esperantza iraunkorra,  
 azkenerainoko maitasuna pazientzia sailduarekin.  
 R̄. Amen.

Zuen egunak eta lanak bere bakean erabil ditzala :  
 zuen otoitzak hemen eta non-nahi entzun,  
 eta eraman zaitzatela betiko bizira.  
 R̄. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
 Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.  
 R̄. Amen.

## 4. TRUFANIA

Ilunbetarik bere argi miresgarrirat deitu zaituzten  
Jainkoak ixur dezala zuen gainerat bere benediziona,  
eta finka ditzala zuen bihotzak  
fede, esperantza eta karitatean.

℞. Amen.

Egun munduan agertzen den Kristori  
jarraikitzen zireztenaz geroz, ilunbetan argi den Kristok  
egin zaitzatela zuek ere argi zuen haurridendako.

℞. Amen.

Mundu huntako ibilaldia bururaturik,  
hel zaitezela, argitik argi den Kristo Jaunarengat,  
Magoek izarra gidari bilatu  
eta poz handiz aurkitu zuten Jesusenganat.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 5. GARIZUMA

Jainko Aita urrikaltsuak eman diezazuela guzieri,  
seme xahutzaileari bezala,  
Aitaren etxera itzultzeko poza.

℞. Amen.

Otoitzean eta bizitzan etsenplu dugun Kristok  
eraman zaitzatela, Garizumako bidetik,  
egiazko bihotz-berritzera.

℞. Amen.

Jakintza eta adoratzeko Izpirituak  
azkar zaitzatela gaizkiaren aurkako borrokan,  
Kristorekin batean bazko-garaipena ospa dezazuen.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 6. JAUNAREN PASIONEKOA

Urrikalmenduaren Aitak, maitasunaren etsenplua eman dauzute bere Semearen Pasionean :  
eman diezazuela bere benedizionearen dohain miragarria, Jainkoaren eta gizakien zerbitzari izanez.

℞. Amen.

Kristoren heriotzeari esker, zuen betiko herioari ihes egin diozuela sinesten duzue :  
ardiets dezazuela Kristorenganik betiereko bizia.

℞. Amen.

Haren umiltasun-bideari jarraikiz,  
haren piztean ere lagun izan zaitezte.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 7. BAZKO GAUEAN ETA BAZKO IGANDEA

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak  
bazko besta huntan,  
eta begira urrikalmendu handiz  
bekaturako bide guzietarik.

℞. Amen.

Bere Semearen piztean betiko bizirako berri zaituztenak  
bete zaitzatela betiereko dohainez.

℞. Amen.

Jaunaren Pasione-egunak bururatu-eta,  
Bazko bestaren bozkarioa ospatzen duzue :  
haren laguntzarekin hel zaitezte  
bihotzak alai, zeruko betiko bestara.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 8. BAZKO DENBORAN

Bere Semearen pizteaz salbatu  
eta bere seme egin zaituzten Jainkoak  
bozkaria zaitzatela bere benedizioneaz.

℞. Amen.

Kristok salbaturik izan duzue  
betiko libertatearen dohaina :  
berak emanik izan dezazuela parte betiko ondoregoan.

℞. Amen.

Kristoren baitan sinetsiz piztu zirezte bataioan :  
orain zuzenki biziz ardiets dezazuela  
harekin izaitea zeruan.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 9. SALBATORE

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak,  
haren Semeak zeruan sartu-eta  
bera dagon tokirako atek ideki baitauzkitzue.

℞. Amen.

Kristo, piztu ondoan, dizipulueri agertu zitzaien :  
juje etorriko denean, ager dakizuela betiereko bakean.

℞. Amen.

Aitaren ondoan jarririk dagola sinesten duzuen,  
pozik sendi dezazuen zuekin dela azken eguna arte,  
berak erran bezala.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 10. IZPIRITU SAINDUA

Izpiritu Saindua ixuriz,  
dizipuluen gogoak egun argitu dituen Jainko Aitak,  
bozkaria zaitzatela bere benedizionez,  
eta bere Izpirituaren dohainez aberats egin.

℞. Amen.

Dizipuluen gainerat miragarriki agertu zen suak  
garbi ditzala zuen bihotzak bekatu guzietarik,  
eta bere argiaren distiraz edertu.

℞. Amen.

Hoinbeste gisetako jendeak fede beraren aitormenean  
bat egin dituenak, irauraraz zaitzatela fede berean,  
eta haren bidez eraman igurikatzen duzuenaren ikustera.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

℞. Amen.

11. URTEAN GAINDI I *(Aaronen benedizionea : Zen 6, 24-26)*

Benedika eta begira zaitzatela Jaunak.

℞. Amen.

Argi beza bere aurpegia zuenganat  
eta urrikal bedi zuetaz.

℞. Amen.

Beha diezazueta eta eman bere bakea.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

℞. Amen.

## 12. URTEAN GAINDI II

*(Filip. 4, 7)*

Asma daiteken baino handiago den Jainkoaren bakeak  
begira bitza zuen gogo-bihotzak,  
Jainkoaren, eta haren Seme Jesu Kristo gure Jaunaren  
jakintzan eta maitasunean.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

℞. Amen.

## 13. URTEAN GAINDI III

Jainko guziahaldunak benedika zaitzatela  
bere urrikalmenduz,  
eta zuhurtzia salbagarria ixur beza zuetara.

℞. Amen.

Haz zaitzatela beti fedearen erakaspenez,  
eta eginkizun sainduetan iraunaraz.

℞. Amen.

Itzul ditzala bereganat zuen urratsak,  
eta bakearen eta maitasunaren bidea erakuts diezazuela.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

℞. Amen.

## 14. URTEAN GAINDI IV

Laguntza guzien Jainkoak  
bere bakan erabil ditzala zuen egunak  
eta eman diezazuela bere benedizioea.

℞. Amen.

Herstura guzietarik atera zaitzatela beti  
eta zuen bihotzak bere maitasunean finka.

℞. Amen.

Fede, esperantza eta karitatez aberats,  
sainduki iragan dezazuela gaurko bizi hau,  
betierekora pozik hel zaitezten.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

℞. Amen.

## 15. URTEAN GAINDI V

Jainko guziahaldunak urrun ditzala zuenganik  
gaitz guziak eta eman diezazuela bere benedizioea.

℞. Amen.

Zabal ditzala zuen bihotzak bere erranetara,  
betiko zorionez bete daitezen.

℞. Amen.

Zer den on eta zuzen ikusirik,  
beti Jainkoaren manamenduen bideetarik ibil zaitezten,  
eta zeruko sainduen ondorekide izan.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

℞. Amen.

## 16. URTEAN GAINDI VI

Jainkoak benedika zaitzatela  
 eta bere aitzinean beti saildu eta garbi egin ;  
 eman diezazuela nasaiki bere aintzaren aberastasuna,  
 argi zaitzatela egiaren hitzaz,  
 salbameneko Ebanjelioa erakatsi eta,  
 haurride-maitasunez bete zaitzatela.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
 Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sailduak.

℞. Amen.

## 17. MARIA BIRJINA DOHATSUA

Maria Birjina ama eginik,  
 gizakia bihotz onez salbatu duen Jainkoak  
 eman diezazuela bere benediziona.

℞. Amen.

Biziaren egilea eman dauzuenaren laguntza  
 sendi dezazuela non-nahi eta beti.

℞. Amen.

Eta Mariaren besta sailduki ospatzerat etorri zireztenek  
 eraman dezazuela zuekin goiko bozkarioaren  
 eta zeruko sariaren dohaina.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
 Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sailduak.

℞. Amen.

## 18. JONDONI PETRI TA PAULO APOSTOLUAK

Benedika zaitzatela Petriren aitormen salbagarrian finkatu eta haren bidez Elizaren fede sendoan oinarritu zaituzten Jainko guziahaldunak.

**R.** Amen.

Paulo dohatsuaren hitzaldiez argitu zaituztenak erakuts diezazuela anaiak Kristorenganat ekartzen, harek egin zuen bezala.

**R.** Amen.

Petrik giltzez, Paulok hitzez, eta biek beren otoitzez, eraman gaitzatela batek gurutzeaz eta besteak ezpataz irabazi zuten zerura.

**R.** Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

**R.** Amen.

## 19. APOSTOLUAK

Jainkoak apostoluen baitan eman dauzue oinarri :  
**I.** (eta **I.**) apostolu sailduaren bitartez benedika zaitzatela.

**R.** Amen.

Apostoluen erakaspén eta etsenplu ederrak eman dauzkizuen Jaunak, haien laguntzaz egin zaitzatela mundu guziarentzat egiaren aitorle.

**R.** Amen.

Haien erakaspenez fedea finkatu dauzuenak betiko etxerat lagun zaitzatela.

**R.** Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

**R.** Amen.

## 20. SAINDU GUZIEN EGUNEAN

Sainduen ospe ta bozkario den Jainkoak  
benedika zaitzatela betiko benedizioez  
Saindu guzien egun huntan.

℞. Amen.

Haien bitartez gaurko gaitzetarik ateratu-eta,  
haien etsenplu sainduak argiturik,  
Jainkoaren eta gizakien zerbitzuan lehia zaitezela.

℞. Amen.

Egun huntan Eliza bozkariotan dago,  
bere seme-alabak aingeruekin batean ikusirik :  
zuek ere heiekin batean izan dezazuela zeruko zoriona.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 21. SAINDU BAT

San(ta) I.-ren besta ospatzera  
bildu gaitu gaur Jainko gure Aitak ;  
benedika zaitzatela, zaindu eta azkartu bere bakean.

℞. Amen.

Kristo gure Jaunak bazko-misterioaren indar berritzailea  
erakutsi du San(ta) I.-ren baitan ;  
egin zaitzatela bere Ebanjelioaren egiazko lekuko.

℞. Amen.

Izpiritu Sainduak ebanjeliozko maitasunaren etsenplua  
eman dauku San(ta) I.-ren baitan ;  
eman diezazuela Elizan egiazko fede ta maitasun  
elkartasuna handitzeko grazia.

℞. Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak. ℞. Amen.

## 22. ELIZAREN SAGARATZE URTEBURUETAN

Zeru-lurren Jaun eta Jainkoak bildu zaituzte egun  
etxe hunen sagaratzeko :

Eman diezazuela nasaiki zeruko benedizioea.

*R.* Amen.

Bere seme barreiatu guziak Kristo baitan bildu nahi izan  
dituen Jainkoak egin zaitzatela bere etxe  
eta Izpiritu Sainduaren bizi-leku.

*R.* Amen.

Zorionez bekatutik garbiturik, zuen baitan izan dezazuela  
Jainkoa, eta saildu guziekin ardiets betiko zoriona.

*R.* Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

*R.* Amen.

## 23. HILENDAKO ELIZKIZUNETAN

Jainkoak gizakia amodio miragarritz egin du,  
eta fededuneri biziberriaren esperantza eman  
bere Semearen piztean.

Bere kontsolamenduez benedika zaitzatela ;

*R.* Amen.

Eman diezagula, bizi gireneri, bekatuen barkamena,  
eta hilak direneri argi ta bake den zerua.

*R.* Amen.

Kristo hilen artetik piztu dela sinesten dugu :  
Harekin bizi gaitezela betiko zorionean.

*R.* Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

*R.* Amen.